

## **ESKOLAKO AGENDA 21: URA**

Eskolako Agenda 21ekin bat egitea erabaki dugu eta horrekin gure ikastetxeko eta gure udalerriko ingurumen kalitatean zerikusirik duten gaietan parte hartzeko, lan egiteko eta erabakiak hartzeko asmoa dugu. Gure ikastetxea zein gure udalak ingurumen kontuetan eredugarriak izatea nahi dugu eta, hori lortzeko, gure esku dagoen guztian ekingo diogu lanari.

Horretarako ikasturte bakoitzean gai berri desberdin bati ekingo diogu, eta ikasturtean zehar hartutako erabakiak hurrengo urteetan ere betetzen jarraituko dugu. Aurten ura eta ibaien gaia landuko dugu.

Dagoeneko hasi gara ikastetxe barruko lana antolatzen. Adibidez, Eskolako Agenda 21 batzordea osatu dugu. Honetan irakasleek, ikasleek, gurasoek eta eskolako beste pertsona batzuek ere hartzen dute parte. Guztion artean gure ikastetxeetan zein bere inguruan uraren problematika aztertuko dugu eta alternatibak bilatuko ditugu. Horrela, uraren kontsumoa murrizteko eta hala eskolan nola gure etxeetan ahalik eta gutxien zikintzeko proposamenak landuko ditugu.

Gure konpromisoak udal foroan azalduko ditugu. Eta konpromisoez gain, udalari eta hiritarrei proposamenak aurkeztuko dizkiegu, arazoek konponbidea gure esku ez dagoen kasuetan gure iritzia ere kontuan har dezaten.

Gure irakasleek uraren inguruan jakin behar dugun guztia ikasteko jarduerak prestatuko dizkigute.

Gai batzuk planeta mailakoak izango dira: ur erreserbak, ugaritasuna eta eskasia, ur gazia eta ur geza, lur gaineko eta lur azpiko urak eta abar. Gai orokor hauen artean, uraren kalitatea eta eskuragarritasuna osasunarekin daukan harremana aztertuko dugu eta kalitate oneko uraren eskuragarritasuna ziurtatzeko ibaien egoera ekologiko onaren garrantzia baloratuko dugu.

Uraren erabilgarritasunean eta erabileran herrialde aberats eta pobreen arteko desberdintasun handiak ezagutuko ditugu baita uraren kontrolaren inguruko konfliktoak ere, hala nola baliabidearen neurritz gaineko ustiaketa, kutsadura edo ibaien egoera txarra.

Dena den, asko jakitea garrantzitsua bada ere, ondo jokatzeko da onena: Horregatik ahaleginduko gara egoera aztertzearekin batera alternatiba egokiak identifikatzen.

Lehen ikertuko dugu gure etxeetako eta ikastetxeko uraren jatorria eta erabili ondoren nora doan: Kaptazioa urtegiak, potabilizazioa, garraioa hoditerian, ur galerak, kontsumoa, degradazioa, estolderia, arazketa eta isurketa.

Gai garrantzitsua da gure etxeetan eta ikastetxean zenbat ur kontsumitzen dugun eta zein nolako ohiturak dauzkagun, hau da, zertarako erabiltzen dugun ura etxean eta ikastetxean. Datuak hartu eta aztertuko ditugu eta orduan ikusiko dugu ea posible den ur gutxiago gastatzea eta gutxiago zikintzea. Horrela lagundu nahi dugu herriko biztanleen batez besteko ur kontsumoa murrizten.

Ikasten dugunarekin guztien artean ikastetxerako plan bat egingo dugu: Helburua zera izango da: ahalik eta ur gutxien gastatzea, erabiltzen dugun ura ahalik eta gutxien zikintzea eta horrela gure inguruko ur ekosistemak zaintzea eta haiekin disfrutatzea.

Proposamenak guztiok egingo ditugu eta Eskolako Agenda 21 batzordearen laguntzaz erabakiko dugu azkenean plana zein den. Berau gauzatzeko ardurak banatuko ditugu, argi utziko dugu zertan konprometitzen garen eta nola berrikusiko dugun noizean behin ea plana ondo doan..

Plana ez da ikastetxeetako hormen artean geldituko: Gure familientzat ere prestatuko ditugu gomendioak eta gu saiatuko gara etxean ere ikastetxean erabaki ditugun konpromisoak eta erabakiak gauzaten.

Bukatzeko, gure lanaren beste atal garrantzitsu bat herriko Agenda 21en parte hartzea da. Nola? Gure aldetik, gure portaera aztertu ondoren, zentzuz eta irudimenez jokatzeko konpromisoa hartzen dugu eta, konponbidea gure esku ez dagoen ataletan gure proposamenak helduei eta Udalari helaraziko dizkizuegu, zuek ere ura eta ur ekosistemen kudeaketan egiten ari zareten lana hobetu dezazuen..

¡¡¡Aurreztu dezagun ura eta zain ditzagun ibaiak: gizabanakook, etxetik, ikastetxean, herrian!!!